


NADUT

HAURREN HEZKUNTZA SISTEMA DESBERDIN BAT PROPOSATZEN
DUEN ENPRESA (HISTORIOEN BIDEZKOA)



- Amaya Udabe
- Joseba Arratibel
- Uxuri Urrate

AURKEZPENA

Hezkuntzaren sailean aurrera pauso handi bat emateko beharra dago, izan ere, haurrak ondo hezi nahi baditugu, hezkuntza on bat eman behar diegu. Horretarako, txikitatik gauzak diren bezala erakutsi behar zaizkie hainbat ereduen edota azalpenen bidez, horrela hobe uler dezaten. Eredu hoberena ipuinen bidezkoa dela iruditzen zaigu, txikitatik baloreak barneratzeko tresnarik eskuragarri eta dibertigarriena delako, horregatik plazaratzen dugu gure zazpi historioz beteriko ipuina. Historio hauek betikoak izango diren arren, azalduko den idea desberdina izango da, hainbat buru hausteren ondoren ohartu baikara betiko historioek hainbat aspektu arrotz jorratzen dituztela; matxismoa, sexismoa eta arrazakeria batik bat.

NADUT izango da gure markaren izena, hau da, ipuin honen sortzailea, eta ELKAR berriz, argitaletxea izango da. Ipuin hau mundu guztiari bideratzen saiatu gara, errealitatea islatuko duten historioak izango baitira bertan.



Azken finean gure helburua hori izango da, mundu guztiak zuzen jokatzeko egoera matxista, sexista, edo xenofoboan aurrean esaterako, hau da, errespetua eta berdintasuna erakutsi nahi ditugu txiki txikitatik. Baina umeen historioak direnez bereziki 3 eta 7 urte bitartean dituztenentzat bideratuko dugu gure ipuina. Bertan, azalduko diren historioak huaek izango dira: “Txanogorritxo”, “Edurne Zuri eta zazpi ipotxak”, “Loti ederra”, “Olentzero”, “Rapunzel”, “Sirenatxoa” eta “Errauskiñe”.

Amaya Udabe, Joseba Arratibel eta Uxuri Urrate gara, Urretxu Zumarraga Lizeoko Bigarren Batxilergoko ikasleak eta gure ideia honek arrakasta izateaz gain, beste hezkuntza sistema bat egotea posible dela erakutsi nahi dugu. Uste dugu, gure liburuaren bitartez aurrera pausu bat eman dezakeela gizarteak, txikia bada ere. Aurrera begira onura asko ekar ditzazke.

